

GORBEIALDEAN BEHIN

1.- ZER DA?

Gorbeialdeko Kuadrilla Asteklimako IV. ediziora batzen da.

Testuinguru honetan Klima eta trantsizio energetikoari buruzko galderen leihaketa on-line bat antolatuko da.

Leihaketa honetan parte hartzeko nahikoa da sare sozialetan jarraitzea eta egunero sare sozialetan partekatuko den estekan sakatzea eta betetzea (Google forms).

Egunero bi galdera berri partekatuko dira: galdera bat energia eta klimari buruzko gai orokorrei lotuta eta bestea, Gorbeialdeko testuinguruan. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible izango ditu, horietako bakarra zuzena izango

Landuko diren gaiak: energia, biodibertsitatea, birziklapena, ura, ekonomia zirkularra, kontaminazioa.

2.- HELBURUA

Ekimen honek, beharrezko trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren aurrean kontzientziatzea eta mobilizatzea du helburu.

3.- DATAK

Irailaren 25tik (astelehena), irailaren 30era (larunbata)

4.- PARTAIDEAK

Hala nahi duten guztiek har dezakete parte.

5.- SARIAK

Egunero 2 sari banatuko dira

-> Parte hartzaile guztien arteko zozketa (zuzen ala oker erantzun): Gorbeialdeko eskualdeko dendetan gastatzeko 30€ ko balioa duen bonoa.

-> Bi galderak zuzen erantzuten dutenen arteko zozketa: Gorbeialdeko eskualdean gastatzeko 60 € ko balioa duen bonoa.

Beraz, 12 sari banatuko dira guztira (6x30€ eta 6x60€)

Saridun guztiei Gorbeialdeko kuadrillako poltsa eta botila berrerabilgarri bana banatuko zaie.

Saridunak hurrengo eguneko goizeko 10etan partekatuko dira sare sozialetan.

Ezin da bi aldiz sari bera jaso. Hau da, 30€ko bonoa irabaztekotan 60€ euroko bonoa irabazteko aukera egongo da, edo alderantziz, baina inoiz ez, bi aldiz sari bera.

Parte hartzera animatu diren dendak eta establezimenduak atxikitutako taulan agertzen dira.

Saria eskatzeko epea: Urriaren 16, astelehena.

Saria gastatzeko epea: Aukeratutako establezimentuaren arabera.

Sariaren banaketa helbide elektronikora edo whatsapp bidez egingo da. Erabili nahi den establezimentuan erakustearekin nahikoa izango da.

6.- DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erreklamenduak (GDPR) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, zera jakinarazten dizugu: emandako datu pertsonalak Gorbeialdeko kuadrillako Gorbeialdean behin leihaketarako bakarrik erabiliko direla. Datu horiek isilpekoak izango dira. Datu horiek ez zaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Gorbeialdeko Kuadrillan.

Udaletxe Plaza 1-1º P.K. 01130 Murgia (Araba).



Informazio gehiago:

Cuadrilla de Gorbeialdea Plaza del Ayuntamiento,1-1 izq. 01130 Murgia (Araba) Tel. 945430167